

**2018ko EUSKADI LITERATURA SARIAK
PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA 2018**

2018-11-27 Vitoria-Gasteiz 27-11-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburuok, herri agintariok, jaun andreok, arratsalde on eta eskerrik asko epaimahai kideei zuen lanagatik.

Jaurlaritzak hala eskatuta, gure letren urtean zehar utzi duten onena hautatu eta nabarmendu duzue. Zuen epaiari esker gizartearen aitortza helarazten diegu gure sortzaileei.

Eskerrik asko eta zorionak saridun guztioi.

Zuen lana aitortu eta, horrekin batera, zuen lana agerikoa eta ikusgai egitea da Euskadi Literatura Sarien helburuetako bat.

Sari hauek sormenaren eta literaturaren bikaintasuna jasotzen dute. Horri esker jomugan jartzen dugu gure literaturaren mundua, agerikotasuna emanaz. Sari hauei esker gehiago hitz egiten da gure kulturaz, gure sortzaileez eta literaturaz; eta gehiago irakurtzea lortu nahi genuke.

Zuen idazteko zaletasunari esker, pertsona askok **irakurtzeko zaletasuna areagotuko dute.**

Los Premios Euskadi de Literatura son un reconocimiento de la sociedad vasca a las autoras y autores vascos más destacados. Un reconocimiento que pretende una **mayor visibilidad** de nuestra literatura.

Siete jurados especializados destacan lo más relevante que las letras vascas han publicado a lo largo del año. Acercan el foco del interés público a un trabajo creativo personal que no siempre cuenta con la atención que debiera.

Estos Premios son, además, una **invitación a la lectura**. A dar el paso y acercarse a estas obras; disfrutar de la oportunidad de vivir otras vidas, imágenes, ideas, sensaciones y pensamientos.

Es un premio disfrutar, por partida doble, del nivel literario de Eider Rodriguez y su personal estilo narrativo; la propuesta poética de Karmelo C. Iribarren, realista, directa, sencilla y también irónica; la delicada elegancia, en espacio y forma, de la ilustradora Yolanda Mosquera.

Es un premio acercarse al conocimiento y amor por la cultura y el cine de Santos Zunzunegui; viajar de la mano de Kepa Altonaga entre Hazparne y Patagonia; disfrutar en euskera de la mejor literatura universal gracias a la precisa, excelente traducción de Irene Aldasoro.

Leer estas siete obras es, **de verdad**, un premio.

Euskadi Literatura Sarien bidez, agerikotasuna ematen zaio gure literaturari, horretaz hitz egin dadin eta, batik bat, herritarrek irakur dezaten. Saritutako lanetara hurbiltzea eta lan horien bidez bestelako bizitzak biziz gozatzea da saria, orrialdez orrialde txunditzea.

Euskaraldiaren bosgarren egunean gaude. Euskaraldiari esker, “aho bizi” eta “belarri prest”, gure artean gehiago hitz egiten ari gara. Gaur, “**begi adi**” gehitu dezakegu, euskararen olatu hau irakurtzeko zaletasunaren mesedetan jartzeko.

Sari hauekin irakurtzeko gonbita luzatzen dugu. Literaturak gozatzeko ematen duen plazer berezi eta bakar horretara hurbiltzeko.

Zuen zazpi lan horiek irakurtzea da Saria.

Zorionak eta eskerrik asko Eider Rodriguez, Karmelo C. Iribarren, Yolanda Mosquera, Santos Zunzunegui, Kepa Altonaga eta Irene Aldasoro.

Eskerrik asko eskaini diguzuen narrazio, poesia, ilustrazio, kultura, istorio eta itzulpen zoragarriengatik.

Sari hauekin zuen lana aitortu eta irakurle zaletasuna zabaltzea da gure xedea.

Eskerrik asko eta zorionak!